


# EBI, 15 arrazoi on baino askoz gehiago

Sareak ez dau sekula alde batera izten hezkuntzarik aurreratuena, euren etorkizunari aurre egiteko prest dagozan ikasleak eta, aldi berean, ikasle solidario eta konprometituak lortze aldera.

Hezkuntzarik barrizailena, banan-banako ikaskuntza-prozesuak, eleaniztasuna, azken teknologiak ikaskuntzarako tresna lez, alkartasuna eta konpromisoa, konprometitu eta eten bako prestaketan murgilduta dagozan irakasleak, osoko arreta ikasle guztiei... eta ikuspuntu humanistiko-kristautik. Elizbarrutiko ikastetxeek ez dabe sekula alde batera izten hezkuntzarik aurreratuena, euren etorkizunari aurre egiteko

prest dagozan ikasleak eta, aldi berean, ikasle solidario eta konprometituak lortze aldera. Gizartearen etorkizuna diran gure neska-mutikoen hezkuntza, gure bizitzen bihotzean dago gaur egun be. EBI ikastetxeetan 15 arrazoi hautatu doguz, zeharkako 15 hezkuntza-ardatz.



## EBI ikastegiak, First Lego League lehiaketan protagonistak

Zazpi ikastegi ordezkari izanik, EBI Elizbarrutiko Ikastetxeak sareak agertze nabaria izango dau robotika, zientzia eta teknologiaren lehiaketa dan First Lego League Euskadin. Euskal barrikuntzaren agentzia dan Innobasquek antolatzen dau lehiaketa eta 2.000 ikasle baino gehiagok parte hartuko dabe edizio honetan. Lehiaketa, era berean, Donostian, Arrasaten eta Bilbon ospatuko da martiaren 4an.

GEHIAGO IRAKURRI

GEHIAGO IRAKURRI

## Santa Ageda eta Aratusteak, ospakizuna eta hezkuntza proiektuaren parte be



Aratusteak ikastetxeak kolorez eta pozez betetzen dabez baina ezin dogu ahaztu jaiak dauan hezkuntza izaera. EBI Elizbarrutiko Ikastetxeen sareko ikastetxeek ondo dakite. Hainbat arrazoi ezkututzen dira ospakizun honen atzean. Lehendabizikoa,

proiektuetan oinarritutako irakaskuntzan oinarritzen dan hezkuntza ereduagaz harreman estua da. Santa Ageda kasuan, ohitura zaharra dan jaiak Elizbarrutiko Ikastetxeetan emoten dan hezkuntzaren ardatzetako bi batzen dauz: euskal kultura eta solidaritatea.

GEHIAGO IRAKURRI



## Garizuma, hausnartzeko aldia

Jesusen lagunak izaten ikasteko be denpora behar dogu: horretarako antolatu zan Garizuma deitzen dan aldia.

GEHIAGO IRAKURRI



## Ingeniaritza Mekatronikoa, CF. Somorrostroko getelan

Muskizko ikastegiak Ingeniaritza Mekatronikoko eskolak jarri dauz abian ikasturte honetan. Mondragon Unibertsitateagaz batera emoten dauz.

GEHIAGO IRAKURRI



## Emakume eta neska zientzialarien eguna: baikortasunerako deia



## EBI ikastetxeetako barrikuntza, alkartasuna... hedabideetan

EBI sareko ikastetxe, irakasle, ikasle eta familiak, gizartearen aurrean bozgorailu pedagogiko bihurtuko dira hainbat hedabideetan.

GEHIAGO IRAKURRI